

ERAKUSKETA

Zinema, Balenciagaren amets bat

Erakusketa **Non:** Cristobal Balenciaga Museoa, Aldamar Jauregia, Getaria. **Noiz:** urriaren 13a arte.

Balenciagak jantzitako izarrak

LAU HAMARKADATAN 20 film baino gehiagotan lan egin zuen Cristobal Balenciagak emakumezko aktoreen jantziak diseinatzen. Orain, Balenciaga Museoa eta Pedro Usabiaga argazkilariak jostunak zinemarekin izan zuen harreman hori bildu nahi izan dute. *Piégés* (1939), *Nuits d'alerte* (1946), *Anastasia* (1956) eta *North by Northwest* (1959) dira film horietako batzuk. Balenciagak jantzi zituen aktoreen zerrenda are deigarriagoa da: Elizabeth Taylor, Ingrid Bergman, Marlene Dietrich, Ava Gardner, Grace Kelly...

Argazkietako batean Marlene Dietrich ageri da *Paris When It Sizzles* (1964) filman, auto batetik irten berri, gona zuzenaz eta patrikadun jakaz osatutako boli koloreko traje bat soinean. *Anastasia* (1956) pelikularen argazkian Ingrid Bergmanek kolore bereko zetazko soineko bat darama, bi xingola brodatuz apaindua. Erakusketako alerik ederretakoa Ava Gardnerrek *The Angel Wore Red* (1960) jantzi zuen gaueko soinekoa da. Filmaren izenburuak aingerua gorritz jantzen zela dioen arren, “munduko animaliarik ederrenak” (hala esaten zioten Ava Gardnerri) daraman soinekoa zetazko gaza beltzez egin da, erpinean amaitzen den eskote zabalekoa. Eskuineko uhalean paparre-



Ava Gardner.

ko bat du apaingarri, eta handik zintzilik ehun bereko exarpea.

Baina hori guztia argazkitan soilik ikus daiteke, argazki erakusketa baita. Faltan botatzen da jantziak bertan ikusi ahal izatea. Horregatik, erakusketa toki ezin hobean dago, museoan getariarraren nahi adina jantzi ikusi (eta ia ukitu) daitezkeelako. Eta Getariako kaleetan Balenciaga mutikoa imajinatu dezakegulako, Casatorreko markesaren soinekoek liluratuta, egunen batean halako jantziak diseinatuko zituela amestetan, zinemako izarrik handienak bere artelanentzat mihise izango zirela susmatu ere egin gabe. ■

**Nagore
Irazustabarrena**



LITERATURA

Poesia betean

UDA BETEAN aurkeztu dira poesia liburu berri bi: Mari Luz Estebanen *Amaren heriotzak librego egin ninduen*, Pamielaren eskutik, eta Mikel Ibargurenaren *Bide batez esanda*, Utriusque Vasconiae-ren eskutik. Lehena auto-narrazioaren bidetik mintzo da, askatasuna eta maitasunaren arteko harremana hizpide, intimitatea poesiarako bide: “Gogoratu du inoiz inon irakurritakoa, garena moztortuz eraikitzen gabela”. Bigarrenak, deserrian zedarritutako ahotsa dakarkigu, gatazka orok norberaren eta inguruko gorpuztutan uzten duen oihartzunarekin, bizipena hitz poetikora ekarria, muturrak ukatu gabeko erdibideek sortu ahal duten mina eta itxaropena: “*baina errealdismo guztien gainetik/ zein kritika literario guztien azpitik, idazten jarraitzeko/ arrazoï poetikoak ditut nik*”. Agian norberaren egia fikzio konpartitua besterik ez da; horrela bada, poesia barne urradura konpartiturako tresna izan liteke, memoria ez-historikoa jasotzeko bide posible bat. Mari Luz Estebanen kasuan, genero gomuten testuinguruan kokatuz gero, batzuoï ezohikoak zaizkigun moduak azaleratzen dizkigu, gero eta gehiago, gero eta ageriago kontraesanak eta eztabaidak, norbera den bestea hizpide. Ibarguren lanean topatu dut egungo bizi-pen zentzu-estu-batean-politikoek pertsonengan duten oihartzun humano itzela, errealtatearen begietatik mina erauzi gabe, aurrera egiteko borondate sendoan izkiriatu. Egungo jendarteetan topa litezkeen kezak, minak, desioak irakurtzeko bideak aurkitu ditut liburu hauetan, poesia betean. ■

Oier Guillan